


UDA

Zeru urdin, iduzki beroa,
haur guziak oporretan gira.
Goizean goiz joan-go(go) dut mendira;
amak prestatzen daut bazkaria.

Gaur banao pozik¹ hondartzara,
itsasoan igerikatzera,
arean² izozki bat jatera.
Gustatzen zait udako aroa.

¹ pozik : botzik

² arean : hariñan, hondarrean, sablean



HELBURUAK

AKTIBITATEAK	ERABIL ETA LAN DAITEZKEEN JAKINTASUNAK	ERABIL ETA LAN DAITEZKEEN ZEHAR JAKINTASUNAK
IRUDITU, SENDITU, SORTU. Kantua gogoz ikasi.	◆ Besteekin parte hartu gorputz adierazpen ihardueretan eta jokoetan, arau soil batzuen arabera, horien balioa onarturik. ◆ Musika talde-ihardueretan parte hartu. ◆ Botzarekin jostatu eta haren ahalak ikertu. ◆ Bere burua espazioan eta denboran kokatu joko kantatu eta dantzatuen bidez.	◆ Jokamoldea talde egoerari egokitu ; parte hartu ; besteekin harremanetan jarri ; besteari behatu, bestea onartu eta errespetatu. ◆ Elgarrekilako bizitzaren arauak ulertu eta onartu, gogokoak ez direnak barne. ◆ Estetikaren sendikortasuna ukan eta bere gustuak adierazi, beste obretan ere. ◆ Bere burua kokatu leku batean. ◆ Bere burua denbora hurbilean kokatu eta hasi kronologiari ohartzen. ◆ Denboraren eta espazioaren markak adierazi. ◆ Oroimena erabili egoera ezagunetan oinarrituz. ◆ Ixtorioen, kantuen, olerkien... eta beste segiden gogoan atxikitzen trebatu. ◆ Agindu/manu bat ulertu eta bete.
MUNDUARI OHARTU. Haurra lagundu bere burua kokatzen urtaro ezberdinetan, egoerak eta giroak oroitaraziz.	◆ Animalien eta landareen biziaren ezaubideei ohartu.	
MINTZATZEN IKASI, IDAZMENARI OHARTU.	◆ Hitza hartu eta molde ulergarrian bere burua adierazi. ◆ Testu laburrak (olerkiak,...) erran eta gogoan atxiki.	
ELGARREKIN BIZI.	◆ Elgarrekin bizitzeko arauak onartu.	

USTIAPENA (egin moldea)

1. Hurrek kantua gogoz ikasten dute.
2. Banatzen zaie eranskinean den marrazkia : gaineko aldean itsasaldea eta behere aldean, mendialdea.
Bakoitzaren ezaugarriak lantzen dituzte (inguramen fisikoa eta aktibitateak).

☺ Bi marrazkiak deskribatu eta, margo itzazu.

Osatzeko :

→ **entzun** *Chants des 4 saisons. Calendrier sonore de la nature*. 09307 KDa. Sittelle.

→ **ikus** *Hitzak jostailu*, 27. or. J. Ormazabal. Elkar.



